



*Bigarren Lehendakarioordea eta Lan eta Enpleguko Sailburua  
Vicelehendakari Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo*

**AGINDUA, 2022KO URRIAREN 27KOA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA LAN ETA ENPLEGU SAILBURUARENA, 2022KO URRIAREN 28, 29ETA 30 ETA AZAROAREN 4, 5, 6, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15 Y 16RAKO DEITUTAKO GREBAK DIRAUEEN BITARTEAN, GIPUZKOAKO APARKALEKU SEKTOREAN ETA TRAFIKO ORDENANTZAN, ERKIDEGOARI EMATEN ZAION FUNTSEZKO ZERBITZUA MANTENDUKO DELA BERMATZEN DUENA.**

ELA, CCOO eta LAB sindikatuetakoko ordezkariak greba deitu dute Gipuzkoako aparkaleku eta trafikoko ordenantza sektorean, urriaren 28, 29 eta 30erako eta 2022ko azaroaren 4, 5, 6, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15 eta 16rako. Egun osoko deialdia egin da.

Grebaren helburuak, deitzaileen arabera, sektorearen baldintzak duintzea dira.

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa eta osasuna. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea erabiltzeak talka egin dezakeenez herritarren gainerako oinarrizko eskubideekin, Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, ezinbestekoa da neurri egokiak hartzea komunitatearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, ez dadin edukirik gabe geratu gatazkan dauden oinarrizko eskubideetako bat bera ere.

Edonola ere, aurreko premisa ondorioztatu ondoren, nabaria da oinarrizko eskubideak murriztuko dituen neurri orok proportzionaltasun-printzipioa zorrotz bete behar duela eta, hori lortzeko, hiru betekizun edo baldintza bete behar ditu neurriak: hori aplikatuz gero proposatutako helburua lortu ahal izatea, edo «egokitasun-judizioa»; kasua aztertu ondoren helburu hori eraginkortasun berdinarekin lortzeko neurri apalagorik ez dagoela ondorioztatu izana, edo «premia-judizioa»; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, «proportzionaltasun judizioa, zentzu hertsian». Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.

Bestalde, Konstituzioaren 19. artikulua zirkulazio-askatasunerako eskubidea aitortzen du, eta eskubide hori oinarritzko beste eskubide batzuk baliatzeko oinarria da, hala nola bizitza, osotasun fisikoa eta osasuna babesteko behar den laguntza jasotzeko eskubidea, edo gainerako herritarren lana garatzen den zentroetara joateko eskubidea. Eskubide horiek ukituak izan litezke, baldin eta edozein unetan zerbitzu sanitarioak, larrialdietakoak, suteak itzaltzekoak edo polizia-zerbitzuak bide publikotik lekualdatzea ahalbidetzen ez bada, besteak beste. Horregatik, beharrezko neurriak hartu behar dira komunitatearen funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, gatazkan dauden oinarritzko eskubideetako bat ere edukirik gabe gera ez dadin.

Inguruabar horiek ikusita, aipatutako greba egiteak izan ditzakeen ondorioak aztertu behar dira. Bere jardueraren barruan sartzen dira, besteak beste, bide publikoan gaizki aparkatuta dauden ibilgailuak kentzeko eta gordailura eramateko jarduketak; enpresa esleipendunek kudeatzen duten udal-garabi-zerbitzua.

Zerbitzu horren arau-babesa Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina (urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) aldatzen duen abenduaren 20ko 18/2021 Legean dago, puntukako gidabaimenaren eta lizentziaren arloan.

Ibilgailuak erretiratzeko zerbitzua enpresa esleipendunek kudeatzen dute, eta bide publikoan zirkulazio askea arautzea eta ahalbidetzea du helburu. Horrela, herritarren joan-etorria, garraio publiko orokorra, osasun-zerbitzuak, zaborrak kentzea edo beste zerbitzu batzuk bermatuko dira larrialdietan, hala nola suteak itzaltzeko eta polizia-zerbitzuak, besteak beste.

Hori dela eta, zerbitzu horiek – zirkulazio askerako eskubideak bermatzen dituen Espainiako Konstituzioaren 19. artikulua babestuak, era berean – harreman zuzena dute Konstituzioak babestutako beste oinarritzko eskubide eta ondasun batzuekin, hala nola, batez ere, bizitzeko, osasunerako, segurtasunerako eta pertsonen osotasunerako eskubidearekin, batez ere – Espainiako Konstituzioaren 15. artikuluaekin, eta horrek «funtsezko» izaera ematen die greba-egoeretan.

Hala ere, lehen aipatutako jarduera guztiek ez dute eragin bera lehen aipatutako oinarritzko eskubideen babesean. Horrela, honako hauek bakarrik hartuko dira gutxieneko zerbitzutzat: ibilgailuak erretiratzeari buruzkoak, kaleetatik zirkulatzea eragozten dutenak edo mendekotasuna duten pertsonen mugikortasunari eragin diezaioketenak; eta ibilgailuak dagokien gordailura eramateari buruzkoak, baldin eta ibilgailua aparkatuta segurtasun-baldintzetan uzteko biderik ez badago. Ibilgailuak kentzeko agindua horretarako eskumena duen agintaritzak eman beharko du.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, kontuan hartu behar da ELA, CCOO eta LAB sindikatuek Gipuzkoako aparkalekuen eta trafikoko ordenantzen sektorean urriaren 28, 29 eta 30erako eta 2022ko azaroaren 4, 5, 6, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15 eta 16rako deitutako grebaren ekitaldian beharrezkoa dela oinarritzko modu batean bermatzea zirkulazio askea, Lehen aipatutako Konstituzioaren 19. artikulua, gutxieneko zerbitzu batzuen bidez.

Ilido horretan, 2017ko uztailaren 17ko Agindua eman zen, Errenteriako Udaleko udal-garabiaren zerbitzuaren esleipenduna den INDIGO PARK S.A. enpresan deitutako grebarako.

Agindu hori ez dira premisa juridiko bat greba-deialdi honetan gutxieneko zerbitzuak finkatzeko – Konstituzio-doktrinak debekatutako inferentzia –, baina egiazta daitezke agindu hori babestu nahi duten Konstituzioak babesten dituen eskubide eta ondasunetan – Grebarena barne – Deialdi horietako gutxieneko zerbitzuek ezarritako babesetarako eragin dituzten ondorio positiboak edo negatiboak. Horregatik, eta funtzio, lurralde eta aldi baterako antzekotasuna kontuan hartuta, baita ukitutako pertsonen kolektiboena ere (enpresak, greba egin duten pertsonak eta zentroetako erabiltzaileak), agindu honek mantendu egiten ditu aipatutako aginduetan orain arte ezarritako gutxieneko zerbitzuak.

Horren haritik, Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Legegintzako Errege-Dekretuaren 10. artikuluko bigarren paragrafoak «gobernuaren agintaritzari» esleitzen dio greba-kasuetan horrelako zerbitzuak ematea ziurtatzeko beharrezko neurriak hartzeko –hala badagokio– eskumena; Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak horren inguruan egindako interpretazioaren arabera (besteak beste: 11/1981 epaia, apirilaren 8koa; 26/1981 epaia, uztailaren 17koa, eta 51/1986 epaia, apirilaren 24koa), erreferentzia hori Gobernuari edo gobernu-ahalmenak egikaritzen dituzten organoei dagokie.

Hala ere, eskumen hori baliatzeak ezin du greba-eskubidea de facto ezabatu, ezta edukiz hustu ere, bermatu beharrezko gutxieneko zerbitzuak betetzeak normaltasun-itxura eman dezan ahalbidetzen baitu, eta hori haren ezarpenak izan behar duen izaera murriztailea oinarri hartuta. Beraz, eta jada ezarrita dagoen jurisprudentziari jarraituz, beharrezkoa da horiek mugatzeko erabakian babestu beharrezko beste oinarrizko eskubideekiko proportzionaltasun egokia gordetzea, eta murrizketa horiek behar bezala justifikatzea.

Aurrekoarekin bat etorritik, desgaitasun intelektualaren maila desberdinak dituzten pertsonen laguntzeko eta zaintzeko zerbitzuaren greba-deialdiak beharrezko neurriak hartu behar ditu gobernu-agintaritzak, ematen duen arretan funtsezko zerbitzuari eutsiko zaiola ziurtatzeko, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan (2015eko urriaren 29ko EHAA) taxututa dagoen bezala. Dekretu horren helburua da Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 2. artikuluan aitortutako eskubide subjektiboa Gizarte Zerbitzuen Legearen 22. artikuluan aitortzen dituen prestazio eta zerbitzuetarako eta horiek baliatzeko, haien egitura eta deskribapena Gizarte Zerbitzuen Lege honen 23. artikuluan aurreikusitakora egokituta.

Hain zuzen ere, zerbitzu hori «funtsezkoa» da, lehen aipatutako arau-konfigurazioaren arabera; izan ere, desgaitasun intelektuala duten eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak dira prestazioen onuradunak, eta gizarte-zerbitzuek bakarrik artatu ditzakete haien premiak.

Pertsona horiei zerbitzu hori ez emateak, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean aitortutako eskubideak kaltetzeaz gain, haien osasunerako arrisku-egoeran jartzea dakar (2006ko abenduaren 15eko BOE). Pertsona horiek babes konstituzional berezia dute, Konstituzioaren 50. artikuluan aurreikusten den bezala, eta bizitzeko, osotasun fisiko eta moralerako eta osasunerako eskubideak ere ukitzen dira, Konstituzioaren 15. eta 43.2 artikuluetan jasotzen direnak.

Hori dela eta, Lan Harremani buruzko Errege Lege-Dekretuaren (martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege-Dekretuaren) 10.2. artikulua aipatzen duen prozedura hasi da, eta entzunaldia eman zaie ukitutako aldeei, enpresa-elkarteei eta sindikatuen ordezkari, baita Foru Aldundiari ere, alegazioak egin ditzaten gizartearentzako funtsezkoak diren zerbitzu hauek bermatzeko beharrianari buruz, bai eta, hala badagokio, estali beharreko gutxieneko zerbitzuak proposa ditzaten ere.

Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 3. artikulua titularrari esleitzen dizkio irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) lan-legeria betearaztearen arloan bereganatutako eskumenak. Zehazki, 2.j) apartatua: zerbitzu publikoak edo premia aitortua eta atzerazina duten zerbitzuak ematen dituzten enpresa, erakunde eta instituzioei eragiten dieten greba-eskubidea egikaritzen den kasuetan, erkidegoaren funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela bermatzeko behar diren bermeak ezartzeko eskumena.

Horregatik guztiagatik, bigarren Lehendakariordeak eta Lan eta Enpleguko Sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari hartuta, honako hau

#### **EBAZTEN DU:**

**Lehen.**- 2022ko urriaren 28, 29 eta 30erako eta azaroaren 4, 5, 6, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15 eta 16rako Gipuzkoako aparkalekuen eta trafikoko ordenantzen sektoreari deitu zaion greba-eskubidea gauzatzeko, honako gutxieneko zerbitzu hauek mantendu beharko dira:

A.- Udal garabi-zerbitzua, enpresa esleipendunek kudeatua:

Agintari eskudunak aginduta, kendu egingo dira, batetik, bide-zirkulazioa oztopatzen duten ibilgailuak, eta, bestetik, desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako aparkalekuak okupatzen dituztenak, eta ibilgailuak gordailutegira eramango dira. Zerbitzu hori garabi batek egingo du lan-txanda bakoitzean, goizez, arratsaldez eta gaez, eta bere ohiko hornidurarekin.

**Bigarrena.** - Dagozkion administrazio-izapideak betez gero, aipatutako zerbitzuak aldatu ahal izango dira grebaren iraupenagatik, edo arrazoi higieniko biosanitarioak edo batbateko ezohiko arrazoiak direla-eta ezinbestekoa baldin bada.

**Hirugarrena.** – 1. Grebarako eskubidea erabiltzen ez duten langileek emango dituzte lehentasunez aipatutako zerbitzuak.

2. Langileen ordezkartzari entzun ondoren, Enpresaren Zuzendaritzari dagokio gutxieneko zerbitzuak egin behar dituzten langileen izenen izendapena eta eginkizunen esleipena, txandak, betiere aurreko artikuluan eta indarreko legerian jasotako mugak errespetatuz.

**Laugarrena.** - Agindu honen aurreko apartatuetan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontraktotzat joko dira eta horiek egiten dituztenak izango dira erantzule, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

**Bosgarrena.** - Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

**Seigarrena.** - Jakinarazten den egunean jarriko da indarrean agindu hau.

**Zazpigarrena.** - Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion salan, ebazpena jakinarazten denetik 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera

Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daitekeela lan-agintaritzan honetan, hilabeteko epean agindua jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen,

**BIGARREN LEHENDAKARIORDEA ETA  
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA**